



## Izquierdo, Fertxu

(Iruñea, 1975)

Iruñean sortu nintzen, 1975ean eta Txantrean bizi naiz.

Hautzaroa erdal giroan murgilduta eman nuen, eskolan, etxean eta, zer esanik ez, kalean. Baina institutuan hasi bezain pronto, euskara serio ikasteari ekin nion.

# 152

Literaturari dagokionez, komikiak irakurtzen hasi nintzen eta, handik narratibara salto egin. Hasiera batean fantasiako eleberriak irakurtzen nituen (Ursula k. Le Guinen liburu ederrak, gehien bat), auzoko liburu-dendan erosiak (Polifemo, goian bego), liburu saltzailearen gomendioak jarraituz. Gerora beste genero batzuk ere ezagutu eta goxatu ditut, jakina. Poesiara erran daiteke kasualitatez iritsi nintzela, Pablo Nerudaren antologia bat jakin-minez (eta merke-merke) erosi nuenean. Harritu ninduen. Eta berehala engantxatu ere. Gehiago nahi nuen. Gehiago behar nuen. Poesia soziala eta surrealistekin ere liluratuta geratu nintzen. García Lorca, Miguel Hernández, Nicolás Guillén, Blas de Otero, Gabriel Celaya... Eta nire euskalduntze prozesua aurrera egitean, orduan izan nuen euskal poesia ezagutzeko aukera. Gabriel Arestiren testuak nire azalean barneratu ziren, bihotzeraino. Bernardo Atxagaren *Etiopiak* astindu ederra eman zidan. Joseba Sarrionandiaren lanak, nire garaiko idazle gazteak... Mundo berri bat. Bestelako mundu eder berri bat. Zitxada bat bezalakoa izan zen, etorkizunari ate irekia. Eta orduan hasi nintzen idazten, euskarari eta poesiari esker. Poesia hasieran. Narratiba geroxeago.

Bitartean, poeta turkiarrak ezagutu eta eragin handia izan zuten niregan: Nazim Hikmet, Sait Faik, İlhan Berk... Horregatik, eragin hauek guztiak kontuan izanda, nire poetikan elementu ezberdinak erabiltzen saiatzen naiz: eguneroko bizitza modernoaren kontakizun urbanoak eta hizkera arrunta, poesia soziala, esperimentazioa, ukitu surrealista...

Hainbat sari eskuratu dut (*Bilboko Blas de Otero Nazioarteko I. Poesia Lehiaketa*, besteak beste), bi poema-liburu argitaratu (*Gerratearen aztarnak*, Pamiela 2007, eta *Telebista antenetan atsedena hartzen dute txoriek*, Alberdania, 2009), nobela bat (*Mendeko Borroka*, Pamiela, 2008) eta hainbat bilduma ezberdinetan parte hartu (*Poesía para bacterías*, Cuernos de Atar, 2008; *39 idazle nafar*, Pamiela, 2017...).

Eta beti daukat, olerki liburu bat (gutxienez) mesanotxearen gainean.

REFUGEES WELCOME?

*mugaren sorbaldei so daude  
ea eutsiko dituzten  
ala ez*

*bustitzen ari dira  
katuak bezala,  
oinutsik,  
ia biluzik,  
duintasunaren zakarontzietan*

*lurra eta zerua daramatzate jantzita  
eta esperantza zapi bat  
areazko poltsikoetan,  
damasko bat  
hor nonbait gorderik  
eguzkiaren begiradan,*

*eta ohartzen dira  
tamalez  
Europa jadanik ez dela  
Zeusen maitemindua,  
haur bat hondartza batean hila baizik*

*hondartza batean hila*

*haur bat*

*europa*

*bustita*

*minez tristuraz amorruz*

*bustita*

*jasminen urrina oparitu nahian*

*besterik ez*

*jasminen urrina,*

*baina eufrates malkoak*

*besterik ez zaizkie geratu*

*eufrates malkoak*

*turkian*

*europako mugetan*

*lekale zaku batean galduak bezala*

*bustita*

*minez tristuraz amorruz*

*euriaaren gortinapean zain*

*jasminen denboraren zain*

*Europa berriro ere noiz maiteminduko*

*zain*

